



MEMORIA 2024

40 urte pertsonei laguntzen



Etorkintza

LAGUNTZAILEAK ETA FINANTZATZAILEAK



SAREAK ETA ALIANTZAK





Etorkintza Fundazioak 40 urte daramatza mendekotasunen eremuan dauden pertsonen eskubideen defentsan, administrazio publikoekin zein erakunde pribatuarekin elkarlanean arituz.

Horretarako sare lanean parte hartzea sustatzen du eta lankidetzarako espazioak ere. Testuinguru horretan, ezagutzen bateratzea arrakastaren adierazle gisa ulertzen da.

Gure proiektuak arrisku-egoeran, menpekotasun, osasun mentaleko arazo eta gizarte- bazterketaren egoeran edo arrisku jokabideak izan ditzaketen pertsona orori zuzenduta daude.

Edonola ere, jakitunak gara menpekotasuna duten pertsonen arreta egokia ematea ezinbesteko ahalegina dela haiei eskubideak benetan bermatu ahal izateko. Egoera oso ahulean dauden pertsonak zailtasun pertsonaletaz haratago, menpekotasunak dituzten pertsonen estigma bikoitza edo hirukoitza jasaten dute, askotan beharrik egon gabe: gizarte-bazterketa egoeran dagoen pertsona, mendekotasuna duen pertsona, eta maiz, osasun mentaleko arazoak dituen.

2024 urtea bereziki garrantzitsua izan da Etor

kintza Fundazioarentzat, konpromiso sozialeko lau hamarkada ospatu ditugulako. 1984an sortu

ginenetik, heroina eta GIBak sortutako osasun eta krisi sozial larriari erantzunez, etengabe lan egin dugu menpekotasunak dituzten pertsonen, osasun mentaleko arazoak dituztenen eta ahulezia egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, euren eskubideak defendatuz eta estigmatikiko borrokan arituz.

Hamarkada hauetan zehar, gizartea sakonki aldatu da, eta mendekotasunekin lotutako profilak eta arazoek ezaugarriak ere bai. Testuinguru honek etengabe egokitu behar izatera derrigortu gaitu, esku-hartzeetan berrikuntzak eginez eta erantzun integralak eta espezializatuak sortuz, gure prebentzio, arreta eta gizarteratzeari buruzko misioa galdu gabe.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, gure sinesmena berresten dugu: Mendekotasunak gaur egun ere gizarte arazo larri gisa agertzen

dira, erronka eta behar berriak planteatzen diren heinean. Estigma sozialak oso barneratuta daude. Hortaz, oraindik ere esku hartzen eta garapen ugari behar dira.

Mendekotasunak zaintzea erantzun globalean oinarritu behar da, baina espezializatua, sarean eta inplikazio kolektiboa eskatuz, non gizarteak oro har eta pertsona bakoitzak bere pape-ra duen.

Horregatik, profesionaltasunez jarraituko dugu lanean, gure onenean, erantzun berritzaile eta jasangarriak emateko, erronka berrietara egokituz, etika, konpromiso eta gogoarekin.

Gure jarduna partekatzen jarraituko dugu, eta arlo honetan parte hartzen duten erakunde, entitate, enpresa eta pertsona guztiekin lankidetzan ari-tuko gara

Salvia Hierro Zatón
Zuzendari kudeatzailea

40 urte pertsonei laguntzen

Etorikintza Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta adikzioak, osasun mentaleko arazoak eta bazterkeria-egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonei laguntzen die.



Aurrera jarraitzen dugu eta zurekin ospatu nahi dugu

ERAGIMAREN DATUAK

- 209.101 pertsona artatutak izan dira urte hauetan zehar.
- 305 ikastetxe baimo gehiagotan, 4.531 irakasle eta 130.781 ikasle trebatu ditugu adikzioen prebentzioan. Ingurune irekian, 7.097 gazte eta nerabe artatu ditugu.
- 38.752 familia artatu ditugu beren seme-alaben heziketa-prozesuan barruan.
- Adikzioak edota osasun mentaleko arazoak zituzten 3.107 gazte eta nerabe artatu ditugu, baita 3.730 familia ere.

- Adikzio eta osasun mentaleko arazoak dituzten 9.321 pertsona.
- 2.407 pertsona arazo judizialekin.
- Arrisku-egoeran zeuden 851 emakume, berriazko programen bidez.
- Egoera ahulean edota gizarte-bazterkeriako egoeran zeuden 4.876 pertsona.
- Eta 1.647 pertsona trebatu ditugu lana bilatzeko.

Gure 40. urteurrena ospatzea ez zen memoria-ariketa bat bakarrik, aurrera begiratzeko gonbidapena ere izan da, 40 urte hauetan egindakoa, lortutakoa eta gauzatutakoak modu partekatuan ospatuz.

Gure eguneroko lanaz haratago, 2024ko urriatik 2025eko martxora bitarteko gure 40. urteurrena ospatzeko esparruan hainbat ekintza garatu ditugu, honako helburu hauekin:

- Menpekotasunak dituzten pertsonen eskubideak defendatzen jarraitzea eta estigmak apurtzea.
- Menpekotasunak dituzten pertsonen beharrak ikusgai jartzea.
- Gizarte debatea sortzea.
- Interes-talde desberdinak partaide

egitea: erabiltzaile eta pazienteak, finantzazio-emaille bezeroak, aliantzak, hornitzaileak, profesionalak eta pertsonak.

- Instituzioen laguntza aitortzea menpekotasunak dituzten pertsonen esku-hartzean.
- Erakundeko langileei aitortza ematea, urteetan zehar profesionaltasuna eta ahalegina eskaini dutelako.

Eta hori guztia herritarren parte-hartzea sustatuz ospatu nahi izan dugu, elkarrizketa eta hausnarketa guneak irekiaz, eta menpekotasunen errealitateari buruzko kontzientzia sortuz, erronka konplexua izaten jarraitzen duen, arrisku, estigma eta desberdintasun berriei zeharkatua.

Arriaga Antzokian **ekitaldi hasiera**, ospakizunen hasierari eman zuena, presentzia instituzionala, komunikabideak eta erakunde laguntzaileak barne.

Ohitura eta estigma gaiei buruzko **erakusketa ibiltaria**, Bizkaiko sei udalerritan ezarria, gure ibilbidea hurbiltzeko eta gizarte eztabaida sortzeko.

5 elkarritzeta eta eztabaida ziklo, gure garaiko gai gakoak jorratuz: indarkeria matxista, migrazioa eta eskubideak, gazteria eta identitateak, adimen artifiziala eta etika, eta ohitura eta estigma.

Bilboko Filarmonikoan kontzertu solidarioa, emakume artistez osatutako orkestraren parte-hartzearekin, aniztasun eta inklusioaren ikur gisa.

Talde barruko topaketa, Etorkintza-ren lana posible egin dutenen aitortza-gune bat, etika, profesionaltasuna eta konpromisoa balio nagusitzat nabarmentzen dituena.

Gala afaria eta aitortza banaketa Euskalduaren Jauregian, erakunde, enpresa pribatu, sortzaile eta laguntza ematen duten pertsonak omenduz, Fundazioaren garapenean duten ekarpena aitortuz.

Proiektu kolektiboa izan da, pertsona eta erakunde askoren inplikazioarekin eraikia, eta horregatik, eskerrik beroena adierazi nahi diegu:

Talde profesionalaren partaideei, haien konpromezua eta jakintzak azken 40 urteetako pauso bakoitza eutsi dutelako.

Boluntarioei, gure historian zehar euren denbora eta konpromisoa eskaini dutelako.

Patronatuari, lidergoagatik eta ikuspegi estrategikoagatik.

Erakunde publiko, gizarte-erakunde eta enpresa kolaboratzaileei, euren konfiantza eta laguntzagatik.

Eta pertsona **partikular guztiei**, ohitura gaien arazoari begirunez eta ekarpenarekin gizarte enpatiko eta justuagoa eraikitzen lagundu dutelako.

Eskerrik asko guztiei, lau hamarkada hauek zenbaki huts bat baino gehiago

izan daitezen, estigmarekin borrokatzeko, eskubideak defendatzeko eta laguntza behar dutenak babesteko istorio partekatua izan dadin lortu dugulako.

40. urteurren honek aurrera jarraitzeko indarra ematen digu, etorkizuna eraikiz, ahaleginak partekatuz eta borondateak batuz.

Guztiei, gure ondoan egon zareten pertsona eta erakundeei, eskerrik asko laguntzeagatik eta posible egiteagatik.

Etorkizuna elkarrekin eraikitzen jarraitzen dugu.



ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

PREBENTZIOA ETA DETEKZIO GOIZTIARRA

Udal-prebentzioko esparrua	176.871
Hezkuntza-esparrua (178 ikastetxe)	
Ikaslegoa	17.348
Irakaslegoa	948
Familiak	31.079
Ingurune irekia	109

TRATAMENDUA

Esku-hartzea nerabeekin eta haien familiekin	97 94
Tratamendu anbulatorioa	267
Egoitza-tratamendua	139
Preso eta zigortuekin esku-hartzea eta laguntza	137

ERDU

115

GIZARTERATZEA

Andrés Aya Goñi eguneko zerbitzua	45
Ostatu zerbitzua	4
Prestakuntza eta enplegua	155
Busturialdea inklusio-zentroa	42

EMAKUMEA

Kemenduz	27
Begira	6
Saregileak	60

AURKIBIDEA

01

PREBENTZIOA

- Udal prebentzioa
- Prebentzio komunitarioa
- Aizu Zerbitzua - Barakaldo

02

TRATAMENDUA

- Egoera zailean dauden nerabeentzako eta haien familientzako arreta-zentroa
- Adikzioak artatzeko zentro ambulatorioa
- Adikzioak tratatzeko kortezubi egoitza-zentroa
- Preso eta zigortuentzako eskuhartzea eta laguntza
-

03

ERDU

04

GIZARTERATZEA

- “Andrés Aya Goñi” eguneko zerbitzua
- Ostatu zerbitzua
- Prestakuntza eta enplegua
- Busturialdea inklusio zentroa

05

EMAKUMEAK

- Kemenduz
- Begira
- Saregileak

06

AHOLKULARITZA

07

DATU EKONOMIKOAK

08

LAN-TALDEA

09

AINTZATEZPENAK

10

NOLA LAGUNDU

PREBENTZIOA

OSASUNAREN SUSTAPENA
ETA DETEKZIO GOIZTIARRA

3 OSASUNA
ETA OINGIZATEA



4 KALITATEKO
HEZKUNTZA



5 GEROB-
BERGINTASUNA



17 ITUNAK
HELBUURIAK
LORTZEKO



ADIKZIOAK PREBENITZEKO UDAL-ZERBITZUAK

176.871 onuradun

20 UDALERRITAN

Alonsotegui, Artzentales, Balmaseda, Bermeo, Bilbao, Erandio, Galdakao, Galdames, Getxo, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Leioa, Sestao, Sondika, Sopuerta, Turtzioz, Ugao - Miraballes eta Zalla.

Adikzioen, arriskuaren eta gizarte-kalteberatasunaren aurrean tokiko eskaerei erantzuteko, zerbitzuak honako jardun-ildo hauek garatzen ditu:

- Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko aholkularitza eta orientazioa, ikuspegi integral eta parte-hartzailetik.
- Udal-beharretara egokitutako prebentzio-planak, -programak eta -proiektuak diseinatzea eta kudeatzea.
- Eragile sozial eta komunitarioekin sarean koordinatzea, sinergiak bateratzeko eta tokiko indarrak indartzeko.

Prebentzioko zerbitzu teknikoak 15 udalerrietan kudea-tzen ditugu: Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Bermeo, Galdames, Getxo, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Leioa, Sestao, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.

PREBENTZIO KOMUNITARIOA


HEZKUNTZA ESPARRUA

IKASLEAK

11.683
IKASLE

♂ 5.824
♀ 5.859

941
tailerrak
ikasgelan



68
esku-hartze
indibidualizatuko
kasuak

3
gizarte- eta
hezkuntza-taldeak

Emozioen kudeaketa eta mindfulness

39

Droga-mendetasunen prebentzioa

689

Ausazko jokoa eta apustuak

90

Teknologia berrien erabilera

123

Ikasleentzako

8,8

IRAKASLEAK

596
ESKU-HARTZE
ZUZENEKO
IRAKASLEAK

♂ 182
♀ 414

Irakasleen GOI
9

FAMILIAK

30.163 | FAMILIA
ONURADUNAK

30.000 | Familia
prestakuntzan eta orientazioan

51 | Aholkularitza eta laguntza
espezifikoko udal-zerbitzuetan
artatutako familiak

112 | Prestakuntza-topaketak


Getxoko "Seme-Alabak" familientzako
aldizkariaren diseinua.

Familien GOI
9,2

Kasuen gainbegiratzea



102 | gainbegiratutako
kasuak

%100 | gainbegiratutako
kasuetan hobekuntza




INGURUNE IREKIA ETA AISIALDIRAKO BESTE ESPazio BATZUK

Arrisku-egoerak detektatzeko eta horiei erantzuteko hezkuntza-harreman zuzenaren bidez aisialdiko espazioetan (lonjak eta gaztegunek) eta ingurune irekiko espazioetan (kalea) esku hartzen dugu.



Banakako esku-hartzearen arrazoi nagusia



Erabilitzaileen GOR

9,2

AIZU!

ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO HAUR
ETA NERABEENTZAKO
ARRETA-ZERBITZUA
BARAKALDON

Aizu Barakaldoko
Udalaren zerbitzu bat da,
nerabezaroan adikzioak
prebenitzeko, eta
hautzaroan arriskuak
goiz detektatzen ditu;
horretarako, irakasleei,
zuzendaritza-taldeei,
ikasleei eta familiei arreta
ematen die.

Ekintzak ikastetxeetan

5.665

haur eta
nerabeak

963

taldeko
hezkuntza-
saioak

25

ikastetxe

113

gainbegiraturako
kasuak

352

irakasle

200

kasuen inguruko
aholkularitza- eta
balorazio-saioak

Ekintzak Aizu! espazioan

113

haur eta
nerabe

1

talde
psiko-
hezitzailea

8

nerabeentzako
tailerrak

28

arreta
indibidualako
familiak

9

familiarentzako
tailerrak

170

tailerretan
parte hartu
duten
familiak



TRATAMENDUA

ANBULATORIOA ETA EGOITZA

3 OSASUNA
ETA ONGIZATEA



5 GENDRO-
BERDINTASUNA



10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



17 ITUNAK
HELBURUAK
LORTZEKO



EGOERA ZAILEAN DAUDEN NERABEENTZAKO ETA HAIEN FAMILIENTZAKO ARRETA-ZENTROA

Nerabeentzako eta haien familientzako gure arreta-zentroaren helburua da nerabeei eta gazteei erantzun globala eta integrala ematea, beren portaeren artean arrisku-jokabideak (harreman-, familia- eta/edo gizarte-eremuan zailtasuna) agertzekotan eta haien garapen ebolutiboan eragina duen kalteberatasun-mailan kokatzen badira.


Era berean, familiekin esku hartzen da, beren zailtasunei erantzunez eta seme-alaba nerabeen prozesua erraztuz.




97
zailtasun-
egoeran
dauden
nerabeak




94
familia-
unitateak



12 urte
baino
gutxiago
%3



12 urte
baino
gutxiago
%2



ADIKZIOAK ARTATZEKO ZENTRO ANBULATORIOA



267
Onuradunak

%16
biztanleria
migratzailea



26
opiazoeekin mantentzeko programan
dauden pertsonak





58
arazo judizialak
dituzten pertsonak

Honako egoerak artatzen ditugu:

- Adikzio-arazoak
- Nahasmendu afektiboak, egokitze-nahasmenduak eta eguneroko bizitzarekiko zailtasunak.

Eskaintzen dugu:

- Ebaluazio diagnostikoa eta tratamendua.
- Banakako, familiako edo taldeko esku-hartzea.
- Balorazio medikoa.
- Erizaintzako arreta (toxikoen, GIBaren eta STGen kontrola).



ADIKZIOAK TRATATZEKO KORTEZUBI EGOITZA-ZENTROA

Etorkintza Fundazioaren Adikzioak Tratatzeko Egoitza Zentroaren helburu nagusia da tratamendu integrala eta pertsonalizatua eskaintzea adikzio-arazoak dituzten pertsonari, bai substantziei, bai jokabideei.




139
artatutako
pertsonak





13
migratzaileak

93|batez besteko
egonaldiko
egunak







10 pertsona opioideen
ordezkoekin tratamendu
programan



15 pertsona
justizia eta zigor
betearazpen programetan



PRESO ETA ZIGORTUENTZAKO ESKU-HARTZEA ETA LAGUNTZA

Espetxeetan egiten ditugun esku-hartzeek funtsezko bi helburu dituzte: batetik, kontsumo-arazoak dituzten presoak mendekotasunen tratamendura hurbiltzea, eta, bestetik, tratamendua eskatzen duten eta epe labur samarrean hirugarren gradua lortzen duten pertsonak artatzea eta prestatzea. Bi helburu horiek erabateko gizarteratzea ahalbidetzera bideratuta daude, drogak kontsumitzeko abstinentzia sustatzean delitu-berrerortzea saihestuz.




137
artatutako
pertsonak



1.364
bakarkako
psikoterapia
saioak

1.240
gizarte-
laneko
saioak






ERDU

ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN
PERTSONEN GIZARTERATZEA



ERDU hurbileko arreta
soziosanitarioan
espezializatutako Eusko
Jaurlaritzak diruz
lagundutako programa
komunitarioa da, hartzailea
dagoen lekura (unitate
mugikorra) hurbiltzen duena,
eta pertsonentzako gizarte-
eta osasun-sistemetarako zubi
gisa balio duena:

- Adikzioen eta osasun mentalaren arazoak.
- Baliabideetara iristeko eta haiekiko loturari eusteko arazo larriak dituztenak.
- Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria jasateko arrisku larrian egotea.



271

lankidetzan
aritu diren
profesionalak

969

koordinazio- eta
konexio-saioak
baliabideekin

BAZTERKETA

PERTSONA AHULAK
GIZARATERATZEN





ANDRÉS AYA GOÑI EGUNEKO ZERBITZUA

27




45
artatutako
pertsonak



33

hilabete
batez
besteko
egonaldia




%62

helburuen
betetzea

Zentro hori Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartuta dago, eta bazterkerian edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen beharrei erantzutea du helburu, mendekotasuna baita gizarteratzea zail- tzen duen faktoreetako bat.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze Zerbitzutik eratorritako pertsona helduentzat da, aldeztu aurretik bazterkeria-balorazioa eginda dutenak edo bazterketa-arriskuan daudenak.






Erabilzaileen GOR
9

OSTATU- ZERBITZUA

Zerbitzuaren xedea da Andrés Aya Goñi eguneko zerbitzuaren erabiltzaileei ostatua eskaintzea, haiei laguntzea eta haiekin esku hartzea, baldin eta, ezaugarri pertsonalak eta koiunturalak direla medio, ohiko higiezin merkatutik kanpo geratu badira, eta etxebizitza duin bat eskuratzeko mugatuta ikusten badute, gizarteratzeko prozesu egoki bat egin ahal izateko moduan.



4
artatutako
pertsonak



PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA


Etorkintza Fundazioak enplegurako zailtasun bereziak dituzten taldeei zuzendutako bi prestakuntza-zentro ditu. Bata Bilbon dago (Zorrotza) eta bestea Kortezubin.

Kortezubi formakuntza zentroa

Busturialdeko Mankomunitateko langabetuentzako eta Adikzioen Egoitza Zentroan tratamenduan daudenentzako enplegurako prestakuntza-zerbitzua da, bereziki enplegagarritasun-zailtasun handienak dituztenentzako. Parte-hartzaileen gaitasunak hobetzea eta laneratzeko aukerak handitzea du helburu, haien beharretara egokitutako eta ingurune inklusibo batean garatutako kalitatezko prestakuntzaren bidez.

Programak bi prestakuntza-espezialitate eskaintzen ditu:

- 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurreko prestakuntza: sukaldaritzako oinarritzko zereginak.
- Nekazaritzako jarduera osagarriak.




Zorroza emakumeari laguntzeko zentroa

Emakumeak gaitzeko eta ahalduentzeko gunea da, eta arreta berezia jartzen du etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko oztopoak dituzten emakumeetan. Bi helburu ditu: alde batetik, Irudi Pertsonalaren sektorean (Estetika eta Ile-apainketa) prestakuntza eskuragarria eskaintzea, garapen profesionalerako lehen ate gisa. Bestetik, eta funtsean, laguntza integrala eta pertsonalizatua ematea, prestakuntzatik haratago doana, emakumeei eguneroko oztopoak gainditzeko eta autonomia eta hazkunde pertsonala indartzen lagunduz.

Programak bi prestakuntza-espezialitate eskaintzen ditu:

- 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurreko prestakuntza: estetiko eta zainketa pertsonaleko oinarritzko zereginak.

- 1. mailako profesionaltasun-ziurtagirien aurreko prestakuntza: ile-apainketako oinarritzko zereginak.



960
emandako
ordu
teorikoak

%90
pertsona
migratzaileak

Lanbideren GOR
10

Erabiltzaileen GOR
9

BUSTURIALDEA INKLUSIO-ZENTROA



42
artatutako
pertsonak



2
artatutako
pertsonak



14
artatutako
pertsonak



10
artatutako
pertsonak



16
artatutako
pertsonak

Eguneko
arreta zerbitzua

Esku-hartze sozioedukatiboa eta
komunitarioa ingurune irekian

Arretarako sistema eta prozesu
soziosanitarioen arteko konexioa

Etxeko janari-zerbitzua
(Gurutze Gorriarekin
lankidetzan)

3

egonaldiko
hilabeteak

%100

amaitutako
ibilbideak

8

zerbitzu
koordinatuak

9

egonaldiko
hilabeteak

12

artatutako gizarte-
erreferentziako pertsonak

2049

landutako
menuak

31

EGOERA AHULEAN DAUDEN

EMAKUMEAK

3 OSASUNA
ETA ONGIZATEA



5 GENDRO-
BERDINTASUNA



10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



16 BAKEA, JUSTIZIA
ETA INSTITUZIOA
SENDOKAK



17 ITUNAK
HELBURUAK
LORTZEKO



KEMENDUZ

Emakumeekin lan egiteko espazio psikoterapeutiko eta hezitzailea, non kontsumo arazoak dituzten edo in-darkeria matxistaren ondorioz diren seinale. Emozio horien lanketa eta laguntza eskaintzen zaie emakumeei.



27
artatutako
emakumeak

13
taldeko
parte-
hartzailerak

16
banakako
psikoterapiako
parte-
hartzailerak

%92
saioetan
emakumeak
mantentzea

330
psikoterapia
indibidualeko
saioak

48
egindako
talde-saioak

23
koordinazio-
saioak 16
erakunderekin





BEGIRA

Begira Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmendua duen egoitza-espazio bat da, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta hurbiltasun giroa eskaintzen diena, baita menpekotasunak eta osasun mentaleko arazoak dituztenei ere. Laguntza pertsonalizatua eskaintzen du, autonomia eta bizitza-proiektu indarkeriarik gabekoak berreraikitzen lagunduz, babes, duintasun, errespetu eta inklusio printzipioetan oinarrituta, eta beste baliabide batzuekin koordinatuz egonkortasuna eta ongizatea bermatzeko.”

34



6
artatutako
emakumeak



SAREGILEAK

SAREGILEAK,

“La Caixa” Fundazioaren babesarekin, laguntza integrala eskaintzen duen proiektua da, Zorroako Emakumearen Laguntza Zentroaren prestakuntza osatuz eta egoera ahulean dauden emakumeen autonomia benetakoa sustatuz. Arreta pertsonalizatua, orientazio lanbidekoa, laguntza psikologikoa eta Lanbide eta Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa eskaintzen ditu. Gehienak gazte migrante langabezian dauden emakumeak dira. Proiektuak parte-hartzaileak oinarritzko beharrak asetzeko eta komunitate-sareekin konektatzeko aukera eman die, independentziarako bidea sustatuz.



60
artatutako
emakumeak

AHOLKULARITZA

Gure praktika profesionalaren bidez ezagutza sortzen dugu, gure esku-hartzeen bidez, eta beste gizarte-eragile batzuekin lankidetzan eta sarean lan eginez. Gure helburua hobekuntza eta aurrerapen jasangarri eta inklusiboak bultzatzea da.

Gure ezagutza, esperientzia eta adikzioetan dugun espezializazioa eskaintzen diegu gizarte-ehunari eta erakunde publikoei, eraikitzeko eta hobetzeko.

Azterlanak, planak eta ikerketak

Hainbat toki-erakundek, administrazio publikok edo erakunde pribatuk eskatutako adikzio-planak, azterlanak eta ikerketak diseinatu eta egiten ditugu.

Argitalpenak eta Material didaktikoa

Prestakuntza

Pertsonen eta erakundeen gaitasunak hobetzeko prestakuntza eta gaikuntza eskaintzen ditugu.

Prestakuntza espezifikoak ematen zaie gizarte-bitartekariei eta hezkuntza-, gizarte-, kultura-, lan- eta osasun-arloko beste profesional batzuei.

Aholkularitza. Gainbegiratzea

Adikzioen arloan aholkularitza eta laguntza presentziala edo online eskaintzen diegu hezkuntza-, gizarte-, kultura-, lan- eta osasun-arloko erakunde eta profesionalei.

Aurkezpenak eta hitzaldiak


Jardunbide egokien aurkezpenak eta hitzaldiak.

DATU EKONOMIKOAK


Diru-sarrerak guztira

Diru-sarreren
jatorria

3.385.894,24€




Diru-sarreren
banaketa



Gastuak guztira

Gastuen
banaketa

3.380.893,19€



Pertsonak patronatuan

Lehendakaria: Juan Pablo Aia Zulaika, Lehendakariordea: Jesús María Esturo Elezkano, Idazkaria: Juan Mateo Ayala García, Batzordekideak: Ignacio Arechabaleta Torrontegui, María Aurteneche Urigüen, José Ignacio Eguiluz Uruchurtu, Juan José Etxeberria Sagastune, Garbiñe Henry Moreno eta Teresa Querejazu Iturburu.

Pertsonak talde profesionalean

Julian Abasolo Jauregui, Carlos Acero Uquijo, Jon Aia Olabarria, Andoni Ansede Zuazola, Naira E. Anze Pujro, Ane Arana Iraragorri, Amparo Arpón Pérez, Adriana Asteiza Bilbao, Iban Aurrekoetxea Peña, Oihana Basteguieta Ortega, Nakor Borge López, Begoña Bosque González, Jose Luis Bosque González, Maite Calvo Asensio, Tomás Cerro Crespo, Maialen Cintado Gordo, Nerea Cortezón Garces, Rafael Cortón Zava, Nerea Crespo Valdivieso, Zayra Crespo Escañó, Inmaculada Cuená Arto, Idurre Duarte Uriarte, Oiane Eguzkitza Akesolo, Aitziber Emperador Gutiérrez, Pedro Espallargas Gómez, Sonia Estefanía, Alonso, María Fernández Pujana, Yasmina Fernández Sobrado, Patricia Ferreira Andre, Paula Frías González, Olatz Garate Cotano, Iragartze Garai Landaluce, Uxue García Zaballa, Janire Gazopo Beaskoetxea, Lola Gómez de Olano, Maialen Gómez Ormachea, Olatz Gordo Menéndez, Fatima N. Groselli Mendoza, Alba Gutierrez Gómez, Patricia Hevia Colomar, Salvia Hierro Zatón, Eider Hormaetxea Llanos, Ana Huertas López, Leire Isasi Zarraga, Lorea Izaga Gallego, Ziortza Jauregi Aisa, Santiago Jayo Azula, María Larrauri Goyenechea, Urtzi Lekanda Pérez, Juan Ignacio Llorente Orbea, Manuel López Martínez, Amaia López Basozabal, Marta Madariaga Lorenzo, Gemma Manuel Otaola, Guillermo Martín Gregorio, Violeta M. Martín Márquez, Hodei Mentxaka González, Aranzazu Muñoz Dominguez, Ane Muro García, Iraia Ouro López, Aitziber Ormazabal Ortiz, Ainhoa Otaola Agirre, Uxue Peña Mentxakatorre, Iñigo Prada Erraiz, Xabier Prada Erraiz, Begoña Río García, Jennifer Rodríguez del Rosario, Ana Rodríguez Berasaluce, Araitx Rodríguez Gutierrez, Jon Ruiz Plágaro, Arantza Ruiz de Eguilaz Ochoa de Amezaga, Itziar Sánchez Sánchez, Izaskun Sastre Barinaga-Rementería, Elen Sebastian Ipiña, Marta Talayero Sebastian, Sergio Torre Calvo, Elene Ureta Ibarra, Maider Urkijo Moreno, Pilar Urra Leza, José Manuel Valdueza Valdueza, Ane Vivanco Garay, Begoña Zabala Olagorta, Ainhoa Zaballa Ibañez, Karima Zighem Méndez, Arantza Zorroza Aldecoa eta Ander Zugaza Aizpuru.

Boluntarioak

Luis Peña González (+), Amparo Arpón Pérez, Iker Pérez Rodríguez, Nieves Mato Ortega, Raúl Diez Ortiz, Manuel González de Audikana De la Hera, Natividad Esquiú Hernández, Itziar Guezuraga Elorriaga eta Iratxe Monge Etxandio.

AINTZATESPENAK

- | | | | |
|-----------|---|------|---|
| 2023 | Unad-Erdu programan adikzioetan esku-hartzeko esperientzia berritzailea aitortzea | 2002 | Utopia saria, Bizkaiko Foru Aldundiak emana. |
| 2020-2024 | “Elkar eginez” aitortpena, 2020-2024ko Euskadiko adikzioen arloko ibilbide profesionalarentzat. Osasun Saila. | 1998 | “Osasunkume” saria Etorkintza Elkargoari, EDEX kolektiboak bere hamargarren urteurrenean droga-mendetasunen prebentzioan egindako ibilbideagatik nabarmendua. |
| 2021 | Elkartasun sariak. BBK-Deia. | 1998 | Saguzar Klubaren Eduardo Ruiz de Velasco saria, egindako gizarte-lanari Zilarrezko domina kartzelako merituz sozialari |
| 2020 | Euskadiko adikzioen arloko jardunbide egokiari buruzko aipamen berezia ERDU proiektuari. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. | 1997 | Gizarte sozialaren ordena zibilaren urrezko gurutzea. |
| 2015 | Euskalit-Kudeaketa Aurreratuari Brontzezko Aintzatespena.

Bilboko Udalak droga-mendetasunen arloan egindako lana aintzatestea. | 1996 | “Drogei buruzko Plan Nazionala” merezimenduaren Gurutze Zuria |
| 2014 | Eusko Jaurlaritzak aitortutako gizarte-intereseko erakundea. | 1992 | Reina Sofía saria toxikomanoekin egiten dugun lan sozialagatik. |
| 2012 | Bikaintasunarekiko konpromisoaren Euskalit diploma. | 1990 | Sabino Arana Fundazioaren saria, “Gizartea” atala. |
| 2006 | Medikuntza Zientzien Akademiaren diploma, HIESaren aurkako borrokan egindako lanagatik. | 1988 | El Correo sariak: Giza balioak |

NOLA LAGUNDU

Etorkintza Elkargoak, bere zeregina garatu ahal izateko, pertsona askoren konpromisoa eta laguntza behar du. Pertsona horiek, zu bezala, gure misioarekin bat egiten dute, eta adikzioei eta bestelako jokabide arriskutsuei erantzuteko beharra dute.

Zure laguntzari esker, mendekotasun-arazoak, arrisku-portaerak eta osasun mentala dituzten pertsonen prebentzio- eta arreta-lanarekin jarrai dezakegu.

Proiektu hau hobeto egiten lagun diezagukezu. Nola?



Egin zaitez
boluntario

Lagundu zure denborarekin. Zu baliotsua zara guretzat, zure denbora solidarioa beharrezkoa da eta ekarpen handia egin

Egin zaitez
bazkide

Gehien interesatzen zaizun arloarekin eta proiektuarekin lotuta.

Dohaintza

Finantzaketa handiagoa behar duten proiektuei lagundu ahal izango diegu.

Banku-kontua
Etorkintza Elkargoa
ES74 2095 0551 6138 0110 4136

Bizum

Egin zaitez
enpresa lagun

Gure balioak partekatzen badituzu, orain, inoiz baino gehiago, enpresa arduradunen laguntza behar dugu gizarte-premiei aurre egiteko.



Etorkintza

Harremanetarako:

fundacion@etorkintza.org

Tel.: 94 444 42 49

Jon Arrospide 24, 48014 Bilbo

GURE ZENTROAK:

Prebentzio Zerbitzua

Jon Arrospide 24, Bilbo

Tel.: 94 444 42 49

Nerabeentzako eta haien familientzako arreta

Jon Arrospide 11 atzealdea, 48014 Bilbo

Tel.: 94 400 15 70

Adikzioen tratamendu anbulatorioa

Jon Arrospide 11 atzealdea, 48014 Bilbo

Tel.: 94 443 10 21

Kortezubiko tratamendurako egoitza

Santa Ana auzoa 15, 48315 Kortezubi

Tel.: 94 625 60 63

Andrés Aya Goñi eguneko zentroa

Jon Arrospide 11, 48014 Bilbo

Tel.: 94 400 1571

Prestakuntza eta enplegua

Montevideo etorbidea 121-beheko solairua, 48013 Bilbo

Tel.: 94 603 90 57

Santa Ana auzoa 15, 48315 Kortezubi

Tel.: 94 625 60 63



Etorkintza